| LABOREA |
|---|
| Zalkea hazia |
| Soja |
| Tabakoa |
| Garia |
| Garia + garagarra |
| Gari gogorra |
| Zalkea alea |
| Azenarioa |
| Lathyrus sativus - Lathyrus cicerra |

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru dekretu honetan onetsi diren aldaketak aplikatuko zaizkie lehenengo xedapenean onartutako deialdian aurkeztutako laguntza eskabideei.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu honek onartu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2011ko apirilaren 5a.– Nekazaritza Saileko foru diputatua, ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ.– Nekazaritzako zuzendaria, EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

## FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**2402**

**26/2011 FORU DEKRETUA, apirilaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sortzen da.**

Arabako Foru Aldundiak herritarrei hainbat tramite eta gestio Interneten bidez egiteko aukera eskaintzen die, “ALAVANET” bere webgunearen “diputaciondigital” atalean.

Ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, aitortzen du herritarrek, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluan aurreikusitako eskubideak erabiltzeko, eskubidea dutela administrazio publikoekiko harremanak bide elektronikoez baliatuz izateko, eta haiek egitez erabiltzeko erregimen juridikoa arautzen du. Bereziki, ekainaren 22ko 11/2007 Lege horren 10. artikuluak egoitza elektronikoaren sorkuntza arautzen du, titulartasuna, kudeaketa eta administrazioa bere eskumenak betetzearen ondorioz administrazio publiko edo administrazio organo edo erakunde bati dagozkion telekomunikazio sareen bitartez herritarrentzat eskuragarri dagoen helbide elektroniko gisa. Egoitza honek segurtasuna, eskuragarritasuna, irisgarritasuna, neutraltasuna, elkarreragingarritasuna eta identifikazio segurua ditu betekizunak, informazioaren eta zerbitzuen erantzukizuna, osotasuna, egiazkotasuna, kalitatea eta gaurkotasuna bermatzeko.

Bide telematikoz eskaintzen diren zerbitzuen hobekuntzarako egitasmoaren barruan, aipatutako legean ezartzen diren berme juridikoak dituzten tramitazio telematikorako prozedura berriak herritarren eskura jarri baino lehenago, eta kontuan hartuz gaur egungo “DIPUTACIONDIGITAL” zerbitzu atariak ez dituela betetzen egoitza elektroniko batek bete beharreko baldintzak eta haren zaharkitze teknologikoaren ondorioz ez dela gomendagarria egokitzea, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sortu behar da, egoitza fisikoaren luzapen birtual gisara.

Horregatik guztiagatik, Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT

**1. artikulua.- Xedea.**

Dekretu honen xedea Arabako Foru Aldundiaren “diputaciondigital” egoitza elektronikoa sortzea da, herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak bere 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

| CULTIVO |
|---|
| Semilla veza |
| Soja |
| Tabaco |
| Trigo |
| Trigo + cebada |
| Trigo duro |
| Veza grano |
| Zanahoria |
| Titos titarros |

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las modificaciones aprobadas en el presente Decreto Foral serán de aplicación a las solicitudes de ayuda que se presenten en la convocatoria aprobada en el disponendo primero.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su aprobación sin perjuicio de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de abril de 2011.– La diputada foral de Agricultura, ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ.– El director de Agricultura, EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN FORAL

**2402**

**DECRETO FORAL 26/2011, del Consejo de Diputados de 5 de abril, que crea la sede electrónica de esta Diputación Foral.**

La Diputación Foral de Álava viene ofreciendo a la ciudadanía la posibilidad de realizar diversos trámites y gestiones a través de internet, en el apartado de “diputaciondigital”, incluido en su sitio web “ALAVANET”.

La Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, reconoce el derecho a relacionarse con las Administraciones Públicas utilizando medios electrónicos para el ejercicio de los derechos previstos en el artículo 35 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, regulando el régimen jurídico para su ejercicio efectivo. En particular, el artículo 10 de la citada Ley 11/2007, de 22 de junio, regula la creación de la sede electrónica como aquella dirección electrónica disponible para los ciudadanos a través de las redes de telecomunicaciones cuya titularidad, gestión y administración corresponde a una Administración Pública, órgano o entidad administrativa en el ejercicio de sus competencias, con los requisitos de seguridad, disponibilidad, accesibilidad, neutralidad, interoperabilidad e identificación segura que garantizan la responsabilidad, integridad, veracidad, calidad y actualización de la información y los servicios.

En el ámbito de plan de mejora de los servicios ofrecidos de forma telemática, previamente a la puesta a disposición de la ciudadanía de nuevos procedimientos de tramitación telemática con las garantías jurídicas establecidas en la citada ley, y dado que el actual portal de servicios “DIPUTACIONDIGITAL” no cumple los requisitos exigibles a una sede electrónica y que su obsolescencia tecnológica desaconseja su adaptación, procede crear la sede electrónica de la Diputación Foral de Álava, como prolongación virtual de la sede presencial.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Administración Foral y previa deliberación del Consejo de Diputados reunido en el día de la fecha,

DISPONGO

**Artículo 1.- Objeto.**

Este Decreto tiene como objeto crear la sede electrónica de la Diputación Foral de Álava, diputaciondigital, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 10 de la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos.

Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa https://e-s.alava.net helbide elektronikoan egongo da eta zuzenean sartzeko modua izango du, bai eta Interneteko www.alava.net atariaren bitartez ere.

**2. atala.- Aplikazio eremua.**

Foru dekretu hau honako hauei aplikatuko zaie:

a) Arabako Foru Aldundiari.

b) Foru erakunde autonomoei, beren administrazio kontseiluek hala onartzen baldin badute, partekatutako egoitza erabakitzen duen hitzarmen egokia formalizatu eta gero.

c) Foru sozietate publikoei, beren eskumeneko administrazio ahalmenak egikaritzean, baldin eta beren administrazio kontseiluek hala onartzen badute, partekatutako egoitza erabakitzen duen hitzarmen egokia formalizatu eta gero.

**3. artikulua.- Egoitza elektronikoaren ezaugarriak.**

Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa ondoko ezaugarri hauekin sortzen da:

a) Haren identifikazioa egoitza elektronikoaren ziurtagiri baten bidez egiten da.

b) Herritar guztientzat eskuragarri dago, dohainik eta etengabe.

c) Beraren bitartez eskuratu daitezkeen informazio eta zerbitzuen osotasunaz, egiazkotasunaz eta gaurkotasunaz erantzuten du Arabako Foru Aldundiak.

d) Printzipio hauetaz araututa dago: publizitate ofiziala, erantzukizuna, kalitatea, segurtasuna, eskuragarritasuna, irisgarritasuna, neutraltasuna eta elkarreragingarritasuna.

e) Behar den guztietan komunikazio seguruak ezartzeko bide ematen duten sistemak dauzka.

f) Irisgarritasuna eta erabilgarritasuna bermatzen ditu horri buruz ezarrita dauden arauei, estandar irekiei eta, hala badagokio, herritarrek eskuarki erabiltzen dituztenei jarraituz.

g) Egoitzaren erabiltzaileak gaitzen ditu beste batzuk zenbait tramite telematiko egiteko baimena emateko, beraiek egin izan balituzte bezalako ondorioekin.

h) Bere edukiak eta zerbitzuak euskaraz eta gaztelaniaz eskuratu ahal izatea bermatzen du.

i) Erabiltzaileari egoitza elektronikoan ala www.alava.net atariaren gainerakoan dagoen bereizteko modua ematen dioten neurriak finkatzen ditu.

j) Urratsez urrats, herritarrak Arabako Foru Aldundian kautotzea edo haiekin bide elektronikoz harremanak izatea behar duten ekintza, jardunbide eta zerbitzu guztiak barne hartuko ditu, baita ere herritarrei zerbitzuak ematerakoan egokitasun, eraginkortasun edo kalitate arrazoiengatik egoitzaren barruan sartzea erabakitzen den guztiak.

**4. artikulua.- Egoitza elektronikoaren hasierako edukiak.**

Egoitza elektronikoaren hasierako edukiak ondoko hauek dira:

a) Egoitzaren eta bere titularraren identifikazioa, baita ere edukien kudeaketaz eta kudeaketa teknologikoaz ardura dutenena.

b) Sinadura elektronikoko sistema onartuen zerrenda, erabilitako identifikazio elementuei buruzko informazioa eta horiek jaulkitzen dituzten emaileak jasoz.

c) Erabilitako zigilu elektronikoen zerrenda.

d) Bitarteko elektroniko bidez jakinarazteko, onartutako jakinarazpen plataformen zerrenda.

e) Jaulkitako eta egiaztatze kode seguru baten bitartez kautotutako dokumentuen kautotasuna eta osotasuna egiaztatzeko sistema.

f) Egoitzan eskuragarri dauden tramite eta zerbitzuen katalogoa.

g) ALHAOren argitalpen elektronikoa.

h) Data eta ordu ofiziala, eta ofizialki baliogabetzat jotako egunak.

i) Iradokizun eta kexen postontzia eta dagokien kudeaketa prozeduraren arautegia.

La sede electrónica de la Diputación Foral de Álava se corresponderá con la dirección electrónica https://e-s.alava.net, siendo accesible tanto directamente como a través del portal de Internet www.alava.net.

**Artículo 2.- Ámbito de aplicación.**

El presente Decreto Foral, será de aplicación a:

a) La Diputación Foral de Álava.

b) Los Organismos Autónomos Forales, cuando así lo aprueben sus Consejos de Administración, previa formalización del oportuno Convenio por el que se acuerde la sede compartida.

c) Las Sociedades Públicas Forales, en el ejercicio de potestades administrativas de su competencia, cuando así lo aprueben sus Consejos de Administración, previa formalización del oportuno Convenio por el que se acuerde la sede compartida.

**Artículo 3.-Características de la sede electrónica.**

La sede electrónica de la Diputación Foral de Álava se crea con las siguientes características:

a) Su identificación se lleva a cabo mediante un certificado de sede electrónica.

b) Está disponible para toda la ciudadanía de forma gratuita y permanente.

c) La Diputación Foral de Álava responde de la integridad, veracidad y actualización de la información y de los servicios a los que pueda accederse a través de la misma.

d) Se rige por los principios de publicidad oficial, responsabilidad, calidad, seguridad, disponibilidad, accesibilidad, neutralidad e interoperabilidad.

e) Dispone de sistemas que permiten el establecimiento de comunicaciones seguras siempre que sean necesarias.

f) Asegura la accesibilidad y usabilidad de acuerdo con las normas establecidas al respecto, estándares abiertos y, en su caso, aquellos otros que sean de uso generalizado por la ciudadanía.

g) Habilita a las personas usuarias de la sede a autorizar a otras para realizar determinados trámites telemáticos con los mismos efectos que si los hubieran realizado ellas.

h) Garantiza el acceso a sus contenidos y servicios en euskera y castellano.

i) Establece medidas que permiten diferenciar a la persona usuaria si se encuentra en la sede electrónica o en el resto del Portal www.alava.net.

j) Incluirá progresivamente todas las actuaciones, procedimientos y servicios que requieran la autenticación de la ciudadanía ante la Diputación Foral de Álava, relacionarse con ésta por medios electrónicos, así como aquellos otros respecto a los que se decida su inclusión en la sede por razones de oportunidad, eficacia o calidad en la prestación de servicios a la ciudadanía.

**Artículo 4.- Contenidos iniciales de la sede electrónica.**

Los contenidos iniciales que contiene la sede electrónica son los siguientes:

a) Identificación de la sede, de su titular, así como de los responsables de la gestión de los contenidos y de la gestión tecnológica.

b) Relación de sistemas de firma electrónica admitidos, incluyendo información sobre los elementos de identificación utilizados así como los prestadores que los expiden.

c) Relación de sellos electrónicos utilizados.

d) Relación de Plataformas de Notificación admitidas para la notificación por medios electrónicos.

e) Sistema de comprobación de la autenticidad e integridad de los documentos emitidos que hayan sido autenticados mediante código seguro de verificación.

f) Catálogo de trámites y servicios disponibles en la sede.

g) Publicación electrónica del BOTHA.

h) Fecha y hora oficial y días declarados oficialmente como inhábiles.

i) Buzón general de sugerencias y quejas así como la normativa del procedimiento de gestión correspondiente.

j) Egoitza sortu eta arautzen duen xedapena, baita erregistro elektronikoa sortzeko araua ere.

k) Herritarrek egoitzarekin komunikatzeko kasu bakoitzean erabil ditzaketen bide elektronikoen zerrenda.

l) Ekipoek egoitza elektronikorako sarbidea izateko bete behar dituzten software eta hardware eskakizun teknikoak. Ahal den neurrian, horiek estandar irekiak edo herritarrek eskuarki erabilitakoak izango dira.

m) Egoitzaren erabilera egokirako beharrezko informazioa, egoitza elektronikoaren mapa barne delarik, baita jabetza intelektualaren ingurukoa ere.

n) Egoitzaren erabilera egokirako, aholkularitza teknikoa emateko zerbitzuak.

o) Datu pertsonalen babesarekin loturiko informazioa.

**5. artikulua- Egoitza elektronikoaren erantzukizun mailak.**

Erantzukizun araubideak ondoko printzipio hauei jarraituko die:

a) Haren titularra Arabako Foru Aldundia izango da, zeina aldioro eskuragarri dauden informazio eta zerbitzuen osotasunaz, egiazkotasunaz eta gaurkotasunaz erantzule izango baita.

b) Arabako Foru Aldundia informatika baliabidez eta zerbitzuz hornitzen duen foru sozietate publikoak kudeatuko du teknologia, eta sozietate hori atxikita dagoeneko sailaren eskumen izango da.

c) Edukien kudeaketa Foru Aldundiaren sail bakoitzaren ardura izango da, Aldundiak martxoaren 10eko Diputatuen Kontseiluaren 22/2009 Foru Dekretuaren bidez onartutako printzipio eta koordinazio irizpideen arabera. Dekretu horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren “ALAVANET” atariaren funtzionamendurako Aldundiaren barne antolaketa arautzen da.

d) Egoitzaren titularrak ez du erantzukizunik izango Arabako Foru Aldundiarenak izan gabe beraren egoitza elektronikoan dauden esteka edo loturen bidez eskura daitezkeen eduki edo zerbitzuen osotasunaz, egiazkotasunaz edo gaurkotasunaz.

Partekatutako egoitzen kasuan, eduki komunez titularkideek erantzukizun solidarioa izango dute, eta eduki partikularrei buruzko erantzukizuna bakoitzaren titularrarena izango da.

**Lehenengo Xedapen Gehigarria. Erregistro elektronikoa.**

Agiri erregistroaren beharrean diren zerbitzu, izapide eta prozedura telematikoetarako, erregistro elektronikoa erabiliko da, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat etorriz.

**Bigarren Xedapen Gehigarria. Baliabide elektronikoen bidez jakinaraztea.**

a) Jakinarazpena baliabide elektroniko bidez egingo da, interesdunak hura lehenetsi edo baimendu badu, administrazio prozeduretan eta bide elektroniko bidez egin daitezkeen izapideetan.

b) Interesdunak jakinarazten dion helbide elektronikora bidaliko dizkio Arabako Foru Aldundiak baliabide elektroniko bidez egindako jakinarazpenak. Postontzi hori Arabako Foru Aldundiak onartutako eta egoitza elektronikoak iragarritako jakinarazpen plataformaren bati lotuta egongo da eta uneoro beteko ditu Zerbitzu Publikoetarako Sarbide Elektronikoa Izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak xedatutakoak.

Baliabide elektroniko bidezko jakinarazpena postontzia inskribatu duen jakinarazpen plataformaren prozedura edo prozedura multzoaren arabera egingo da, plataforma horretan xedatutako baldintza eta jarraibideen arabera, hain zuzen ere.

c) Interesdunak baimena bertan behera utzi ahal izango du, jakinarazpena baliabide telematiko bidez egin dadin. Horretarako, postontziari lotutako jakinarazpen plataforman, eguneratu egin beharko ditu prozedurak, hau da, zer prozedura bidez nahi duen telematikoki jakinaraz diezaioten adierazi.

j) Disposición por la que se crea y regula la sede, así como la norma de creación del registro electrónico.

k) Relación de los medios electrónicos que la ciudadanía puede utilizar en cada supuesto para comunicarse con la sede.

l) Requisitos técnicos de software y hardware de los equipos, necesarios para el acceso a la sede electrónica que, en la medida de lo posible, serán estándares abiertos o de uso generalizado por la ciudadanía.

m) Información necesaria para la correcta utilización de la sede incluyendo el mapa de la sede electrónica, así como la relacionada con la propiedad intelectual.

n) Servicios de asesoramiento electrónico para la correcta utilización de la sede.

o) Información relacionada con la protección de datos de carácter personal.

**Artículo 5.- Niveles de responsabilidad de la sede electrónica.**

El régimen de responsabilidad responderá a los siguientes principios:

a) Su titularidad corresponderá a la Diputación Foral de Álava, que responderá de la integridad, veracidad y actualización de la información y los servicios disponibles en cada momento.

b) La gestión tecnológica se realizará a través de la Sociedad Pública Foral encargada de proveer los servicios y recursos informáticos necesarios a la Diputación Foral de Álava, siendo competencia del Departamento al que dicha Sociedad esté adscrita.

c) La gestión de los contenidos corresponderá a cada Departamento Foral, conforme a los principios y criterios de coordinación aprobados por la Diputación por el Decreto Foral 22/2009, del Consejo de Diputados de 10 de marzo, regulador de la organización interna foral para el funcionamiento del portal “ALAVANET” de esta Diputación Foral de Álava.

d) El titular de la sede no será responsable de la integridad, veracidad ni actualización de los contenidos o servicios ajenos a la Diputación Foral de Álava a los que se pueda acceder mediante enlaces o vínculos contenidos en su sede electrónica.

En el caso de sedes compartidas, la responsabilidad de los contenidos comunes será solidaria de los cotitulares y la relativa a los contenidos particulares corresponderá al titular respectivo.

**Disposición Adicional Primera. El Registro Electrónico.**

En los casos de los servicios, trámites y procedimientos telemáticos que requieran el registro de documentación, se utilizará el Registro Electrónico conforme a lo establecido en la normativa reguladora de los Registros de la Diputación Foral de Álava.

**Disposición Adicional Segunda. La notificación por medios electrónicos.**

a) La notificación se practicará empleando medios electrónicos cuando la persona interesada haya elegido estos medios como preferentes o consentido su utilización en los procedimientos administrativos y trámites incorporados a la tramitación por vía electrónica.

b) Las notificaciones por medios electrónicos de la Diputación Foral de Álava se realizarán a la persona interesada a través del buzón electrónico que ésta comunique para tal fin. Dicho buzón deberá estar asociado a alguna de las Plataformas de Notificación aceptadas por la Diputación Foral de Álava y de las que se da publicidad en la Sede Electrónica, cumpliendo en todo momento con los requisitos establecidos al efecto por la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos.

En particular, la notificación por medios electrónicos se realizará respecto al procedimiento o familia de procedimientos a los que previamente haya suscrito su buzón electrónico en la Plataforma de Notificación correspondiente, en los términos y condiciones que se especifiquen en cada Plataforma.

c) La persona interesada podrá revocar su consentimiento para que la notificación se practique por medios telemáticos, en cuyo caso deberá actualizar, en la Plataforma de Notificación asociada a su buzón, los procedimientos respecto a los cuales desea ser notificado telemáticamente.

Baimena bertan behera uzten duenetik aurrera egingo zaizkio jakinarazpenak bide berriaren bidez.

d) Aurreko idatz zatietan araututakoak ez du indarrik izango, legeren batek bide elektronikoak eskatzen dituenean edo arau bidez xedatzen denean bide elektroniko bitartez baino ezin dela harremanik izan Arabako Foru Aldundiarekin. Horrako hori gaitasun tekniko edo ekonomiko handia edo beren zeregin profesionala edo beste arrazoi batzuk medio beharrezko baliabide teknologiak dituztela egiaztatuta duten pertsona juridikoei eta pertsona fisikoen taldeei eskatzen zaie.

e) Arazo teknikoak direla-eta baliabide elektroniko bidezko jakinarazpena ezinezkoa bada, posta bidez jakinaraziko du organo jakinarazleak.

**Xedapen Iragankorra.**

Foru dekretu hau indarrean sartu aurretik baliabide telematiko bidez eskainitako zerbitzuak, aurrerantzean ere, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eskainiko dira, ordura arte indarrean izan diren termino eta baldintza beretan.

Eragiketa gakoak 2011ko abenduaren 31 arte izango dira erabilgarri. Egun horretatik aurrera unean-unean onartutako egiaztagiri elektronikoen bidez baino ezin izango da sartu eta identifikatu egoitza elektronikoan.

**Xedapen indargabetzailea.**

Indargabetu egiten da 2/2010 Foru Dekretua, urtarrilaren 26ko Diputatuen Kontseiluarena, Arabako Foru Aldundiaren Interneteko zerbitzuak erabiltzeko administratuek jarraitu beharreko prozedura onartu zuena, bai eta foru dekretu honetan xedatutakoaren aurka doan xedapen oro.

**Azken xedapena. Garapena, indarrean jartzea eta egitez aplikatzea.**

1. Foru Administrazioaren Saileko diputatuari ahalmena aitortzen zaio foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren arauak eman ditzan.

2. Foru dekretu hau 2011ko maiatzaren 11n sartuko da indarrean.

Gasteiz, 2011ko apirilaren 5a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.– Zerbitzu Orokorren zuzendaria, LUIS LATORRE MURGA.

Dicho cambio de medio se hará efectivo para aquellas notificaciones que se realicen a partir de la mencionada revocación.

d) Lo dispuesto en los apartados anteriores se excepciona cuando una Ley exija o infiera medios no electrónicos y cuando reglamentariamente se establezca la obligatoriedad de comunicarse con la Diputación Foral de Álava utilizando sólo medios electrónicos para personas jurídicas o colectivos de personas físicas con gran capacidad técnica o económica, dedicación profesional u otros motivos acreditados tengan garantizado el acceso y disponibilidad de los medios tecnológicos precisos.

e) Si la notificación por medios electrónicos no fuera posible por problemas técnicos, el órgano actuante practicará la notificación postal.

**Disposición Transitoria.**

Los servicios prestados de forma telemática antes de la entrada en vigor del presente Decreto Foral, seguirán prestándose a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Álava en los mismos términos y condiciones que hasta ese momento.

El uso de claves operativas será válido hasta el día 31 de diciembre de 2011. A partir de dicha fecha, el acceso y la identificación en la sede electrónica se realizará exclusivamente mediante los certificados electrónicos admitidos en cada momento.

**Disposición Derogatoria.**

Queda derogado el Decreto Foral 2/2010, del Consejo de Diputados de 26 de enero, que aprueba el procedimiento a seguir para el acceso de los administrados a los servicios de Internet de esta Diputación Foral y cuantas disposiciones se opongan a lo expresado en este Decreto Foral.

**Disposición Final. Desarrollo, entrada en vigor y aplicación efectiva.**

1ª. Se faculta al Diputado de Administración Foral para dictar las normas necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

2ª. El presente Decreto Foral entrará en vigor el día 11 de mayo de 2011.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de abril de 2011.– El Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– El Diputado de Administración Foral, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.– El Director de Servicios Generales, LUIS LATORRE MURGA.

*Diputatu Nagusiaren Foru Dekretuak*

## EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**2291**

**77/2011 FORU AGINDUA, apirilaren 5ekoa. Honen bidez, onartu egiten da udalek eta kuadrillek, euskara normalizatzeko, sustatutako programak garatzeko dirulaguntzetarako 2011ko deialdi publikoa.**

2011ko ekitaldian euskara normalizatzeko programak garatzeko, udalei eta kuadrillei dirulaguntzak emateko deialdi publikoa egitea proposatu du Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, dagozkidan ahalmenez baliatuz, eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta, honakoa

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Udalei eta kuadrillei dirulaguntzak emateko deialdi publikoa onartzea, 2011ko ekitaldian euskara normalizatzeko programak edota jarduerak egin ditzaten, eta horretarako 177.000 euro izango dituzte, gehienez ere. Hori guztia 2009ko urriaren 19ko ALHAOn (119 zenbakia) argitaratutako urriaren 6ko Diputatuen Kontseiluaren 69/2009 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko da. Foru dekretu honen bidez, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arautzaile orokorrak onartu ziren.

*Decretos Forales del Diputado General*

## DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTES

**2291**

**DECRETO FORAL 77/2011, del Diputado General de 5 de abril, que aprueba la convocatoria pública de subvenciones para el desarrollo de programas de normalización del euskera, promovidos por Ayuntamientos y Cuadrillas, ejercicio 2011.**

El Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava propone la Convocatoria pública de subvenciones a Ayuntamientos y Cuadrillas, para el desarrollo de programas de normalización del euskera, durante el ejercicio 2011.

Vistos los informes preceptivos.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen y a propuesta de la Diputada Foral titular del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes,

DISPONGO

Primero.- Aprobar la convocatoria pública de subvenciones a Ayuntamientos y Cuadrillas para el desarrollo de programas de normalización del euskera, que regirá en el ejercicio 2011, con una dotación máxima de 177.000 euros, que se regulará por lo previsto en el Decreto Foral 69/2009 de 6 de octubre, del Consejo de Diputados, publicado en el BOTHA nº 119 de 19 de octubre de 2009, que aprobó las bases reguladoras generales aplicables a las subvenciones que se otorguen en régimen de concurrencia competitiva en el ámbito de las competencias del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.